

# Eskola baten kartografia



Kartografia kolaboratibo bat osatuko dugu teknika artistiko desberdinak erabilia. Formatu horrek gure eskolak edo institutuak osatzen duen lurraldean bizi dugun esperientziari (pertsonala zein kolektiboa) buruzko gogoeta sustatuko du.

## Helburuak

- Teresa Sabatéren obrara eta sormen-prozesuetara hurbiltzea.
- «Bidea» eta «kartografia» kontzeptuetara hurbiltzea, gure identitatea eta lurraldea ulertzeko modu gisa.
- Prozesu piktorikoak eta sormen plastikozko prozesuak esploratzea, taldekako lanaren ikuspuntutik.
- Deriba-prozesu batean murgiltzea, premisa honen arabera: «Badakigu nola hasten garen, baina ez nola bukatzen dugun. Ez dugu emaitza zehatz bat bilatzen, aurkitzen dugunarekin ikasten dugu».

## Aipamenak

*A pie y mano (Oinez eta eskuz), Virginia Santos eta Teresa Sabaté:* <https://www.noticiasdenavarra.com/cultura/2018/12/09/camino-andar/794676.html>

*Tiffany Chungren remapping-a:* <https://www.youtube.com/watch?v=gttUWgzTMOw>

*Ghada Amer, brodatuak eta feminismoa:* <https://www.youtube.com/watch?v=XO3ur7Y-D1iU>

*Argazki bat brodatzeko jarraibideak:* [https://www.youtube.com/watch?v=OE\\_oWq-q0f8](https://www.youtube.com/watch?v=OE_oWq-q0f8)

*Puntadak paperean (obsolete):* <https://www.youtube.com/watch?v=F2MWok-ol5c>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** A pie y mano (Oinez eta eskuz) proiektua ikusiko dugu, Virginia Santos eta Teresa Sabatérena.

Hari buruz hitz egiteko, honelako galderak botako ditugu:

Zer da mapa bat? Zer itxura izan ohi dute? Zertarako balio dute?

Zer motatako mapak egiten ditu Teresak? Maparik jarraitu dugu inoiz? Baten bat asmatu al dugu?

**2.** Ongi ezagutzen dugu gure eskola edo institutua? Zer bide egiten dugu goizero? Berbera al da urtero?

Eskolaren plano baten gainean, egiten ditugun ibilbideak identifikatuko ditugu.

Ibilbide motak zerrendatuko ditugu: beldurra ematen didana, lagunena, zigorrarena, bihurrikeriena, debekatua...

Planoan oinarrituta (Google Earth-eko argazkia edo eskolaren marrazkia), ibilbideak kartografiatuko ditugu, hainbat kolore edo bilbe erabiliz.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Gure mapak hartu, eta ikasgelatik aterako gara markatutako bideetako bat egiteko. Garrantzitsuak iruditzen zaizkigun elementu, espazio edo pertsonak behatzeko eta erregistratzeko denbora nahiko iraun behar du ibilbide bakoitzak. Modu askotan erregistra daitezke: argazkiekin, marrazkiekin, audio batekin edo monotipia (frottage) lanekin.

**2.** 4 pertsonako lan-taldeetan, pintura edo brodatu esperimentalak darabilten beste artista garaikide batzuk ikertuko ditugu. Horretarako, Teresaren obrarekin eta haren erreferenteekin hasiko gara. Beste bi gehituko ditugu gutxienez. Ahozko aurkezpen bisual bat prestatuko

dugu aurkikuntzak klasekideen aurrean partekatzeko. Gure arreta gehien deitu duten ezaugarriak komunean jarriko ditugu, bereziki teknikari, materialen erabilerari, formatuari eta abarrei dagokienez. Nola isla dezakegu hori gure lanean?

**3.** Hainbat material ekarriko ditugu etxetik: papera, hariak, orratzak... Papera brodatzeko moduak aztertuko ditugu. Liburuak edo YouTube-ko tutorialak kontsulta ditzakegu, baita gure kabuz esperimentatu ere. Lehenago lortutako marrazkiak eta argazkiak berreskuratuko ditugu. Argazkiak zuri-beltzean inprimatu, eta ikasitako brodatzeko teknikak aplikatuko dizkiegu, kolorea emateko edo motiboak gehitzeko. Marrazkiak berreskuratu, eta bukatu egingo ditugu. Emaitzak komunean jarriko ditugu.

**4.** Kartulina handi baten gainean, kartografia kolaboratibo bat osatuko dugu 4ko taldearen ibilbide indibidualak islatzeko. Ibilbideak osatzeko, collage bat egingo dugu brodatutako argazkiekin, marrazkiekin eta pinturrekin. Marrazkiak gehituko ditugu, margotu edo brodatu, eta garrantzitsuak iruditzen zaizkigun irudiak sortu.

### Ondorioak eta lerro irekiak

**1.** Sortutako kartografia multzoari argazkiak atera, A4 formatuan inprimatu, eta fanzine bat osatuko dugu. Mapa bakoitzaren prozesuari buruzko informazio bisuala ere sartuko dugu: zirriborroak, argazkiak, etab.

Josiz enkoadernatuko dugu. Bukaeran, interbenitu gabeko mapa jarriko dugu.

Gure lanak eskolan erakutsiko ditugu. Fanzineak eskura utziko ditugu, nahi duenak bat hartzeko, eta ibilbideetako bat egitera edo azken orrialdean norberaren ibilbidea zirriborratzera gonbidatuko ditugu.